

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak hainbat funtsezko baliabide behar ditu, adibidez, bezeroei eskaintzeko elikadura eta edariak.

Horiek eskuratzeko, hainbat konfidantzako hornitzaileekin hitz egin dugu. Izan ere, hornitzaile hauek, Euskal Herriko produktu natural eta beganoak eskainiko dizkigute, gure jakiak ezinhobeak izateko.

Enpresa hasi aurretik ez da erraza gure etorkizuna igartzea. Horrenbestez, ezinezkoa iruditu zaigu lehengaiak zer maiztasunarekin eskatuko ditugun erabakitzea. Izan ere, guztiz bezero kopuruaren arabekoak izango dira eskaera-bolumena eta eskaera-puntua.

Dena den, argi dugu gure enpresaren gasturik handiena kontzertuak izango direla, astero musikarien zerbitzua ordaindu beharko baitugu.

Lanaren antolaketari dagokionez, sukaldean Itsaso Bolinaga sukaldaria izango dugu, eta bezeroekin harremanetan, gainontzeko enpresako langileak.

Ordutegia nahiko malgua izango dugu. Izan ere, bezeroen arabera jardungo dugu lanean, haien nahietara edo beharretara egokituz.

